

Bideo-joko didaktiko berriak

Solabarieta Arrizabalaga, Danel
Elhuyar Edizioak

***Geografian aditu/aritu* eta *Armix Ilargian galduta* argitaratu ditu Elhuyar Fundazioak. *Geografian aditu/aritu* CD-ROMak *Brain Training* motako modako jokoan bideari jarraitzen dio. *Armix Ilargian galduta*, berriz, hiru dimentsiotan garatzen den plataforma-jokoa da.**

JOKOEK IKASTEKO PROZESUAN DUTEN GARRANTZIA ASPALDITIK EZAGUTZEN DA, baina bideo-jokoan kasu nabaria da hezkuntzarako dituzten aukerak aprobetxatu gabe daudela oraindik. 1972an kaleratu zuten *Pong*, lehen bideo-joko modernoa, eta hari buruz Newtonen oinarriko fisika ulertzeko balio zuela esan zuen Carl Saganek. Ordutik hona, bideo-jokoek hezkuntzarako dituzten aukerak geroz eta gehiago aprobetxatu dira, eta horren lekuko dira Elhuyarrek 7-10 urteko gaztetxoentzat kaleratu dituen bi CD-ROMak.

Geografian aditu/aritu

CD-ROM honek gizartean modan dauden *Brain Training* motako jokoan jokatzekeko moduari jarraitzen dio. Hainbat jokatzen aritu behar du jokalaria, eta



lortutako puntuak grafikoan bitartez adierazten dira, jokalaria bere bilakaera ikusteko aukera izan dezan. Horretaz gain, beste baliabide batzuk ere eskaintzen ditu, mapa mutuak, adibidez.

Jokoetan, mapa fisiko eta politikoek hartzen dute protagonismoa: munduko mapak, bost kontinenteetako mapak, Espainiako mapak, Frantziako mapak eta Euskal Herriko mapak.

Horietako bakoitzarekin, zailtasun-maila aukeratu eta gero, lau jokatzen jokatzen ahal da, toponimoak kokatuz, puzzle moduan jokatuz edota leku-izenak euskaraz idatziz, Euskaltzaindiaren aholkuei jarraituta. Beraz, geografiaren inguruko hainbat joko ludikoren eskaintza egiten du Elhuyar Fundazioak, *edutainment* motako software geroz eta ezagunagoa eskainita.



Armix Ilargian galduta

Ordenagailurako joko hau 3D-ko plataforma-joko deritzenen artean sailka daiteke. Protagonista nagusiak, Armixek, Ilargiko hainbat eszenatoki zeharkatu beharko ditu, eta oztopoak gainditu. Oztopo horietako batzuk hizkuntzari, matematikari eta inguruaren ezaguerari buruzko galderak izango dira, eta ondo erantzun beharko da aurrera egiteko. Adibidez, animalia baten argazkia aurkezturik, omoduna edo omogabea den asmatu beharko da.

Oso opari egokia izan daiteke, beraz, CD-ROM hau, Armixen serieko bigarrena. Bai joko honek eta baita *Geografian aditu/aritu*-k ere bakoitzak bere web orria dute (demoa eta bideoa), eta horietan proba daitezke:

www.elhuyar.org/armix2

www.elhuyar.org/geografia 